Un conocido gastrónomo como es Llona Larrauri en su ingreso en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País con un texto titulado «Las formas de comer de los vascos a lo largo de la historia, con atención especial al siglo XX» (2001) sostuvo que «...el pimiento se adaptó perfectamente tras su llegada de América y hoy son numerosas las variedades que se cultivan en el País Vasco, con diferencias entre sí por su tamaño, color y sabor.»

El pimiento de Gernika era conocido inicialmente como Pimiento de Bizkaia. Es una variedad que se ha adaptado perfectamente a la climatología y al paladar de los vascos. Tiene diferencias con otros pimientos verdes en las características de fruto, tanto en el grosor de la pulpa (menor en el pimiento de Gernika), como en la presencia de una epidermis gruesa que llega a formar «pergamino» así como en la intensidad del color y del sabor.

El pimiento de Bizkaia antiguamente se trataba de un cultivo enfocado prioritariamente a la producción de pimientos ya maduros (como fruto rojo), es decir a la producción de pimiento choricero. Posteriormente se secaba en ristras y se conservaba en seco para su utilización en la elaboración de embutidos (inicial) y como condimento para la preparación de salsas y guisos muy apreciados en la gastronomía del país: Bacalao a la Vizcaína, angulas al pil-pil, sopa de ajo, etc.

Este tipo de producción para choricero, declinó a un plano secundario, dando paso a una recolección del pimiento precoz, recolectándose el pimiento en verde y en estado muy tierno para su consumo en frito, que es el producto que se corresponde a la denominación «Genikako Piperra» o «Pimiento de Gernika».

Este pimiento toma el nombre del municipio de Gernika porque tradicionalmente éste ha sido el territorio donde más se ha cultivado y el que le ha dado el nombre gracias a su famoso mercado hortofrutícola que se celebra todos los lunes y en el que el pimiento es uno de los productos protagonistas. Actualmente es el segundo cultivo hortícola de más importancia en Bizkaia, después de la lechuga.

Gernikako merkatu honen garrantzia dela kausa, tokiko aldizkari bat bere jatorriaz interesatu zen bere aurrekari historikoak aurkitzeko helburuz. Jakin badakigu, 1366. urteko apirilaren 28ko Gernikako Hiria Sortzeko Gutunean honakoa zegoeneko irakurtzen zela: «...que haiades por mercado cada semana el miércoles». Denbora luzez Lumo eta Ajangizko kontzejuek barazki eta abereen merkatuak antolatzen jarraitu zuten, baina 1613. urtean Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusiek dekretatu zuten Gernikako azokak San Bartolome egunetik (abuztuak 24) San Andolin arte egingo zirela, eta horrela auzoko elizateak kaltetzea saihestuko zen (Arana Martija, J.A. «Historia del último lunes de octubre», 1990).

Gernikako piperra Bizkaiko zati handi batean landatzen da. A. Alonsoren lanean («Conservación y reproducción de material vegetal de Pimiento de Gernika», 1994) honakoa irakur dezakegu: «... haziaz hornitzeko iturri nagusia, inguruko nekazariak dira, duela ehunka urteetatik hona landatzen dutenak. 1982. urtean, labore hau Bizkaiko baratzezaintzako bigarrena zen bere garrantziari dagokionez, hala aire zabalean eta berotegian eskainitako bere azaleragatik, nola bere errentagarritasunagatik eta bere fruituen kalitatea oso ondo baloratzen duen merkatu baten aukera komertzialengatik.».

Gernikako Piperrari buruzko azterketa sakona egin ondoren, A. Alonsok ondorioztatu du produktu hau ezagutzen den Euskal Herriko kultibarrik zaharrenetakoa dela, eta bere haziak eta eskuratzeko bere sekretuak gurasoengandik seme-alabengana igarotzen direla mendeetan zehar eta Bizkaiko historiaren zatia izan da. (Alonso, A. «Conservación y reproducción de material vegetal de Pimiento de Gernika», 1994-1995) «Piperra euskal sukaldaritzako atalik garrantzitsuenetako baten zatia da. Gure bizimoduan guztiz errotu da, eta egun gure bizitzaren adierazpenik egiazkoena, herrialdeko toki askotan landa-ingurunean garatzen dutena esaterako, ezin dugu azaldu Amerikatik datorren produktu hau gabe. Bizkaitarrek, orain dela 400 urte ezagutzen ez zuten produktuaren bidez, agian bere sukaldaritzako jakirik onena ez ezik, maila unibertsalekoa ere dena, egin dute eta produktu exotiko batez lortu dute.» Horixe da José María Busca Isusi izeneko bromatologo eta gastronomo gipuzkoar ezagunaren iritzia, 70 urteen hasieran gastronomiari buruzko bere zutabean eskaintzen zuena (Busca Isusi, J.M. «Artículos periodísticos sobre pimientos»).

Gernikako piperraren kontsumoa, piper frijiturako, Euskal Herriko ezaugarria da, eta bertan nolabaiteko garrantzia du, azkeneko urteotan hazi dena eta hazkuntza-lerroak ekoitzi eta aukeratzeko teknikak hobetzeko tokiko ikerketa lana ekarri duena. Ikerketa lan honen emaitza izan da barietateen garapena. Horretarako, tradizionalki eta belaunaldiz belaunaldi haziari eutsi dioten 500 baserri baino gehiagotan aurkitutako lerroak aukeratu dituzte.

La importancia de este mercado gernikes llevó a una revista local a interesarse por su origen con el fin de descubrir sus antecedentes históricos. Se sabe que en la Carta Fundacional de la Villa de Gernika del 28 de abril de 1366 ya se leía lo siguiente: «...que haiades por mercado cada semana el miércoles». Durante mucho tiempo los concejos de Lumo y Ajangiz continuaron organizando sus mercados de hortalizas y de ganado, pero en 1613 las Juntas Generales del Señorío de Bizkaia decretaron que las ferias de Gernika se celebraran desde San Bartolomé (24 de agosto) hasta San Antolín, evitando así dañar a las anteiglesias vecinas (Arana Martija, J.A. «Historia del último lunes de octubre», 1990).

El pimiento de Gernika se cultiva en gran parte de Bizkaia. En el trabajo de A. Alonso («Conservación y reproducción de material vegetal de Pimiento de Gernika», 1994) encontramos que «... su principal fuente de aprovisionamiento de semilla, son los agricultores de la zona que lo vienen cultivando desde hace cientos de años. En 1982, este cultivo era el segundo en importancia en la horticultura vizcaína, tanto por la superficie dedicada al aire libre y en el invernadero, como por su rentabilidad y las posibilidades comerciales de un mercado que valora muy positivamente la calidad de sus frutos.»

Tras realizar un minucioso estudio sobre el Pimiento de Gernika, A. Alonso llega a la conclusión de que este producto es uno de los cultivares más antiguos conocidos en Euskal Herria, y que sus semillas y sus secretos de obtención vienen dándose de padres a hijos a través de los siglos y viene siendo parte de la historia de Bizkaia. (Alonso, A. «Conservación y reproducción de material vegetal de Pimiento de Gernika», 1994-1995) «El pimiento es parte de uno de los capítulos más importantes de la cocina vasca. Se ha incrustado de tal manera en nuestra forma de vivir, que hoy la más genuina expresión de nuestra vida, como es la que se desarrolla en el medio rural en muchas partes del país, no nos la podemos explicar sin este producto procedente de América. Los vizcaínos con un producto que desconocían hace 400 años no sólo han hecho el quizás mejor plato de su cocina, sino de rango universal, y lo han conseguido con un producto exótico.» Esta es la opinión que el reconocido bromatólogo y gastrónomo guipuzcoano José María Busca Isusi ofrecía en su columna gastronómica a principios de los 70 (Busca Isusi, J.M. «Artículos periodísticos sobre pimientos»).

El consumo de pimiento de Gernika, para pimiento frito, es característico del País Vasco donde tiene una relativa importancia que ha ido creciendo en los últimos años y ha dado origen a un trabajo de investigación local para mejora de técnicas de producción y selección de unas líneas de cultivo. Fruto de este trabajo de investigación ha sido el desarrollo de variedades, seleccionando las líneas localizadas en más de 500 caseríos que tradicionalmente y generación tras generación, habían mantenido la semilla.

F.2.– Gernikako piperra gastronomian.

Gastronomo ospetsuen (Jose M.ª Busca Isusi) egunkariko artikulu askok Gernikako itsasadarreko piperraren bikaintasunaz berba egiten dute (El Correo de Vizcaya, 4. faszikulua. «Guernica-1», 1970. urtea), eta piper mota hauen gozotasuna nabarmentzen dute, eta 30. hamarkadako urteen errezetako zenbait liburuk jakiaren oinarrizko osagaitzat Gernikako lukainka-piperra duten Bizkaiko erara egindako saltsak dituzten jakiak aurkezten dituzte. 1930. urteko «El Amparo» bezalako errezeta-liburuek edo Parabereko Markesaren errezetek piper hauek jasotzen dituzten bere jakien osagaien artean.

Euskal Herriko gastronomiako kritikari handi guztiek eta estatuko besteren bat gehiagok ere (Llona Larrauri, Busca Isusi, J.L. Iturrieta, J.J. Lapitz, José Castillo, Parebereko Markesa edo Ignacio Domenech) produktu hau beren artikuluetan goretsi dute edo bere errezetaren batean jaso dute. Munduan ospe handia duten euskal sukaldariek ere (Arguiñano, Subijana edo Martín Berasategi adibidez) produktu hau erabiltzen dute bere errezetetan.

Horrela bada, bere osagaien artean Gernikako Piperra duten errezetak oso ugari dira, eta hauek «goren» edo «ikaragarri» bezalako kalifikatzailez deskribatu dituzte.

Gernikako piperra ezagutarazteko helburuz, 1998. urtean «Gernikako Piperraren Kofradia» eratu zen. Talde honek Gernikako piperra sustatzeko hainbat jarduera antolatzen ditu udalerriko udalaren eta bestelako erakundeen babesarekin, produktu honen dastaketa Gernikako azoka tradizionalean esate baterako.

El Correo egunkariak ere artikulu ugari eskaini dizkie Gernikako piperrei eta udalerri honetako merkatuari. Hauetan agerian gelditzen da Gernikako azokaren eta piper berde hauen arteko lotura. Alde batetik merkatuak Bizkaian duen garrantziaren eta bertako piper berdean bertan duen garrantziaren berri ematen du. Bestaldetik, toki honetako piperra goraipatzen da eta honakoak bezalako baieztapenak erabiltzen dira: «jaki bikaina» edo «lur honetan hazten diren fruiturik gorenetako bat» (El Correo «Artículos periodísticos sobre el mercado y el pimiento de Gernika», 1988-1999).

Ospea New Yorkera ere iritsi da. Bertan Teresa Barrenecheak, Manhattango bere jatetxean, bakailaoz betetako piperrak eskaintzen ditu Gernikako benetako piperrez egindako Bizkaiko erarako saltsarekin (Llona Larrauri, J. «Las formas de comer de los vascos a lo largo de la historia, con atención especial al siglo XX», 2001).

Lurraldean piperrarekiko dagoen zaletasuna Espainiako Elikaduraren datuak egiaztatzean agerian gelditzen da, hauetan ikus dezakegu euskaldunek Espainiako piper-kontsumitzaile handienak direla: 5,5 kilo / 3,3 kilo (Mercasa «Alimentación en España 2001», 2002).

F.3.– Naturala.

F.2.– El pimiento de Gernika en la gastronomía.

Muchos artículos periodísticos de afamados gastrónomos (Jose M.ª Busca Isusi) hablan de las excelencias del pimiento de la ría de Gernika (El Correo de Vizcaya, Fascículo n.º 4. «Guernica-1», año 1970), destacando la suavidad de este tipo de pimientos y varios libros de recetas de los años 30 presentan platos con salsas a la vizcaína que cuentan con el pimiento choricero de Gernika como ingrediente básico del plato. Libros de recetas como «El Amparo» del año 1930 o las recetas de la Marquesa de Parabere incluyen estos pimientos entre los componentes de sus platos.

Todos los grandes críticos gastronómicos del País Vasco y alguno más del resto del estado (Llona Larrauri, Busca Isusi, J.L. Iturrieta, J.J. Lapitz, José Castillo, Marquesa de Parebere o Ignacio Domenech) han alabado este producto en sus artículos o lo han incluido en alguna de sus recetas. Incluso cocineros vascos de fama mundial como Arguiñano, Subijana o Martín Berasategi utilizan este producto en sus recetas.

Así, son innumerables las recetas que cuentan con el Pimiento de Gernika entre sus ingredientes, que son descritos con calificativos como «estelares» o «fabulosos».

Con el único fin de dar a conocer el pimiento de Gernika se constituyó en 1998 la «Cofradía del Gernikako Piperra», colectivo que organiza diversas actividades promocionales del pimiento de Gernika con el apoyo del ayuntamiento del municipio y de otras instituciones, como por ejemplo la degustación de este producto en el tradicional mercado de Gernika.

El Diario El Correo también ha dedicado numerosos artículos a los pimientos de Gernika y al mercado de este municipio. En ellos queda de manifiesto la unión entre el mercado de Gernika y estos pimientos verdes. Por un lado deja constancia de la relevancia que el mercado tiene en Bizkaia y la importancia que el pimiento verde del país tiene en él. Por otra parte se ensalza el pimiento de este lugar y se utilizan afirmaciones como: «sublime manjar» o «uno de los frutos más excelsos que brotan en esta tierra» (El Correo «Artículos periodísticos sobre el mercado y el pimiento de Gernika», 1988-1999).

La fama ha llegado incluso a Nueva York donde Teresa Barrenechea, desde su restaurante en Manhattan ofrece unos pimientos rellenos de bacalao con salsa vizcaína elaborada con auténticos pimientos de Gernika (Llona Larrauri, J. «Las formas de comer de los vascos a lo largo de la historia, con atención especial al siglo XX», 2001).

La afición que por el pimiento se siente en el territorio queda patente al comprobar los datos de Alimentación en España en el que se recoge que los vascos son los mayores consumidores de pimientos de España: 5,5 kilos frente a 3,3 (Mercasa «Alimentación en España 2001», 2002).

F.3.– Natural.

Klima, erliebea eta edafologia

Euskal Autonomia Erkidegoa 7.300 km² eta 2,2 milioi biztanleko eskualde txikia da, Espainiako Iparrean kokatuta dagoena.

Euskal nekazaritza bertako kontsumorako ekoizpenean oinarriturik dago; euskal produktuak eskatzen direlako. Eskualde guztietan lehen sektoreko lau azpisektoreek (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza) ez dute garrantzi berbera, lurraldeko ezaugarri geografikoek mugatuta baitaude. Euskal nekazaritzaren sektoreak bi eremutan bereizita daude; atlantikoa eta kontinentala. Eremu atlantikoan, honetan Gernikako Piperra landatzen da, mendiko nekazaritza egiten da, eta bertan abeltzaintza, baratzezaintza eta basogintza jarduera nagusiak dira. Kantauri/Atlantikoko isurialdearen eta kontinental edo mediterraneoaren artean dagoen alde handiak dauden ustiategi kopurua ere baldintzatzen du, eta baita hauen neurria ere (Biblograf «Eskola Gida Vox: Geografía», 1997).

Euskal Herria landare-espezie kopuru handirako muga-eremua da. Busca Isusi gastronomoak dio mundu soko muga-eremuetako produktu guztiek ospe merezia dutela. Antza denez, giroaren aurkako borroka gogorrean hazi izanak janari-kalitate hobea dakar (Busca Isusi, J. M. «La alimentación de Guipúzcoa», 1968).

Busca Isusi jaunaren arabera, «Amerikako produktuek Euskal Herrian izan zuten harrera onaren arrazoietako bat da gure lurzorura eta gure klimara berehala egokitu zirela izan zen» (Busca Isusi, J. M. «La alimentación de Guipúzcoa», 1968).

Klima

Ziur aski, latitudea da EAEko klima gehien baldintzatzen duen faktore geografikoa da. Urtaroetan izpiek duten inklinazioa altitudearen mende egoten da. Bada, EAEko altitudeak, 42.º eta 43,05.º bitartean Ekuadorretik iparrean, komunitatea eremu epela deitutakoaren barruan kokatzen du (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

Euskal Herriko isurialde atlantikoak mesotermikoa deitzen den klima motari dagozkion datu estatistikoak agertzen ditu, hau da, moderatua tenperaturei dagokienez eta oso euritsua, hilabete lehorrik gabe eta euri gehienak udazken-neguko garaian egoten direla. Köppenen sailkapen tematiko unibertsalean urtaro lehorrik gabeko klima epel hezea, edo klima atlantikoa, deitzen da eta Cfb letren bidez sinbolizatzen da. Klima honetan ozeano Atlantikoak eragin nabarmena du, Europako mendebaldeko kostalde osoa mendebaldeko haizeen lur-zerrendaren barruan kokatzen baita, hau da, nagusi den fluxu orokorra mendebaldetik ekialdera doan eremu latitudinala. Modu horretan aire-masak, ur ozeaniko epelekin harremanetan sartzean bere tenperaturak leundu direlarik, kostaldera iristen dira eta, ondorioz, gau eta egunaren arteko, edo uda eta neuaren arteko,

Clima, Relieve y edafología

El País Vasco es una pequeña región de 7.300 km² y una población de 2,2 millones de habitantes, situada en el Norte de España.

La agricultura vasca esta basada en la producción para consumo propio; porque se demandan productos vascos. En todas las comarcas los cuatro subsectores del sector primario (agricultura, ganadería, silvicultura y pesca) no tienen la misma importancia ya que están limitados por las características geográficas del territorio. Los distintos sectores de la agricultura vasca se encuentran diferenciados en dos zonas; la atlántica y la continental. En la zona atlántica, que es donde se cultiva el Pimiento de Gernika, se lleva a cabo una agricultura de montaña donde la ganadería, la horticultura y la silvicultura son las actividades más importantes. La gran diferencia existente entre la vertiente Cantábrico/Atlántica y la continental o mediterránea condiciona incluso el número de las explotaciones existentes pero también su tamaño (Biblograf «Eskola Gida Vox: Geografía», 1997).

El País Vasco es área límite para gran número de especies vegetales. El gastrónomo Busca Isusi sostiene que los productos de las áreas límites en todo el mundo gozan de merecida fama. Parece algo así como si el haber crecido en dura lucha con el ambiente se traduce en una mejor calidad alimenticia (Busca Isusi, J. M. «La alimentación de Guipúzcoa», 1968).

Según Busca Isusi «una de las razones de la buena acogida de los productos americanos en el País Vasco es que se adaptaron enseguida a nuestro suelo y nuestro clima» (Busca Isusi, J. M. «La alimentación de Guipúzcoa», 1968).

Clima

La latitud es probablemente, el factor geográfico que más condiciona el clima de la CAPV La inclinación de los rayos en diversas estaciones del año depende de la altitud. Pues bien, la altitud de la CAPV entre los 42.º y los 43,05.º al norte del Ecuador, sitúa a la comunidad dentro de lo que se ha llamado la zona templada (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

La vertiente atlántica del País Vasco presenta unos datos estadísticos que corresponden a un tipo de clima que se denomina mesotérmico, moderado en cuanto a las temperaturas y muy lluvioso, sin ningún mes seco y con el máximo de lluvias en la época otoño-invierno. En la clasificación temática universal de Köppen se denomina clima templado húmedo sin estación seca, o clima atlántico, y se simboliza con las letras Cfb. En este clima el océano Atlántico ejerce una influencia notoria, debido a que toda la costa occidental de Europa se enclava dentro del cinturón terrestre de los vientos del oeste, es decir, una zona latitudinal en donde el flujo general predominante es de oeste a este. De esta forma masas de aire, cuyas temperaturas se han suavizado al contacto con las templadas aguas oceánicas, llegan a la costa y hacen que las oscilaciones térmicas entre la noche

tenperatura-bitarteak ez dira oso nabarmenak izaten (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

Faktore orografikoa da, erliebea, Euskal Herriko isurialde atlantiko osoko euri kopuru handia azaltzen duena, 1.200 eta 2.000 mm baino gehiago bitartean batez beste urtean, urtaro lehorrik gabe, gehienekoa udazkenneguan egoten dela. Euskal mendi eta Pirinioen hurbiltasuna dela eta, iparreko sektoretik datozen aire-masak igotzen dira, bere ur baporea kondentsarazten duen hoztea pairatzen dute eta, ondorioz, horrek bere hezetasuna ere askatzea eragiten du, euri asko eta bortizki egiten duela (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

Bizkaiko probintziak Gipuzkoakoak baino prezipitazio txikiagoa biltzen du urtean. Bizkaian prezipitazioek 1.000 mm gainditzen dute, baina 1.500 mm baino gutxiago dira, mendiko eremu mugatu batzuetan izan ezik. Gipuzkoan, aldiz, prezipitazioek bai gainditzen dute 1.500 mm, mendebaldeko kostaldean izan ezik, azken honetan urtean, batez beste, 1.300 mm izaten dira, eta agian iparraldeko barneko haran babestu batzuetan izan ezik. Isurialde kantauriarraren beste ezaugarri bat udako bigarren erdialdean eta udazken hasieran egon ohi diren prezipitazioen maila handia da, garai honetan euskal kostaldean maiz oso ezegonkorra eta oso hezea den gainazaleko aire-masa sortzen da, iparraldeko haize arinak daudela (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

y el día, o entre el verano y el invierno, sean poco acusadas (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

Es el factor orográfico, el relieve, el que explica la gran cantidad de lluvias de toda la vertiente atlántica del País Vasco, entre 1.200 y más de 2.000 mm de precipitación media anual, sin estación seca, con un máximo en otoño-invierno. Debido a la proximidad de los montes vascos y de los Pirineos, las masas de aire provenientes del sector norte ascienden, sufren un enfriamiento que les hace condensar su vapor de agua y consecuentemente precipitar su humedad, con lo que llueve intensa y abundantemente (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

La provincia de Bizkaia recoge una precipitación anual inferior a la de Gipuzkoa. En Bizkaia las precipitaciones superan los 1.000 mm pero quedan por debajo de los 1.500 mm, excepto en limitadas zonas de montaña. En Gipuzkoa, por el contrario, las precipitaciones si suelen superar los 1.500 mm, a excepción de la costa oeste, en donde las medias anuales rondan los 1.300 mm, y quizás también con la excepción de algunos valles interiores protegidos del norte. Otra característica de la vertiente cantábrica es el alto nivel de precipitaciones que con frecuencia se suele registrar en la segunda mitad del verano y comienzos del otoño. es frecuente en esta época la formación en la costa vasca de una masa de aire superficial muy inestable y muy húmeda; con ligeros vientos del norte (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).



4. irudia / *Figura 4*

Tenperaturei dagokienez, nolabaiteko moderazioa nabarmendu behar dugu (urteko batezbesteko tenperatura 13 ºC da eta tenperatura-bitartea 11 ºC), horrek funtsean neguak oso leunak eragiten ditu. Horrela bada, euskal kostaldeko neguko gutxieneko tenperaturak Levante eta Kataluniako kostaldekoen antzekoak izaten dira. Kostaldean urteko batezbesteko tenperaturek Euskal Herriko baliorik handienak izaten dituzte, 14 ºC inguru. Udak freskoak izan arren, egon litezke, halere, bero handiko gertaerak, 40 ºC arteko tenperatura-igoerak daudela, bereziki udan zehar, izan ere, garai honetan Afrikako latitudetatik etor daitekeen hegoaldeko haize lehorra are gehiago berotzen da Kantaurirantz jaistean. (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

Tenperaturen leuntasun honetan eragina dute hodeitza handiek, honek beroa galtzea saihesten baitu, eta itsasoa hurbil egoteak. Leunak kostaldean eta hurbileko aldeetan, eta aldeak are handiagoak dira Kantauritik Ebroko depresiorantz aldentzean, azken honetan udak beroagoak eta neguak apur bat hotzagoak izaten baitira (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).

En cuanto a las temperaturas es de destacar una cierta moderación (temperatura media anual de 13 ºC y oscilación térmica de 11 ºC), que se expresa fundamentalmente en la suavidad de los inviernos. Es así que la costa vasca tiene unas temperaturas mínimas invernales semejantes a las de la costa levantina y catalana. Las temperaturas medias anuales registran en la costa los valores más altos de Euskal Herria, unos 14 ºC. Aunque los veranos sean frescos, son posibles, sin embargo, episodios cortos de fuerte calor, con subidas de temperatura de hasta 40 ºC, especialmente durante el verano, cuando el reseco viento del sur, que puede provenir desde latitudes africanas, se calienta aún más en su descenso hacia el Cantábrico (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

En la suavidad de las temperaturas influye la elevada nubosidad, que evita las perdidas de calor, y la proximidad del mar. Suaves en la costa y zonas cercanas, mientras que las diferencias son mayores al alejarnos del Cantábrico hacia la depresión del Ebro, donde los veranos son más calurosos y los inviernos algo más fríos (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).



5. irudia / *Figura 5*

Euskal Herriko klima dela eta, ureztatzeko sistema ez da ezinbestekoa nekazaritzako ekoizpenerako, eta Busca Isusik adierazten duen bezala «jende orok daki lehorreko produktua, oro har, ureztatukoa baino hobea dela» (Busca Isusi, J. M. «La alimentación de Guipúzcoa», 1968).

Erliebea

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) lurralde menditsutzat definitu daiteke. 75/278/EEE zuzentarauarekin bat etorriz, lurraldearen % 85 «mendiko eremutzat» hartzen da, eta horrek dauden topografia eta klimako mugen gaineko ideia ematen du, hauek lehen sektoreko jarduera gogor baldintzatzen dutela (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

Egiturazko bi multzo handitan banatzen da: arku atlantikoa edo euskal atalasea deitutakoa, Pirinioen sistemaren ekialdeko jarraipentzat hartua, eta Ebroko depresioa hegoaldean. Lehendabizikoak hedadura handiena hartzen du (Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako zati handi bat). Ebroko depresioan Arabako Errioxa eskualdea baino ez da sartzen (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

Lehendabiziko multzoa hainbat tolestura mesozoikok osatuta dago, O-E orientazioa dutenek, eta bigarren mailako estaldura osatzen zutenek. Mendikate Kantauriar eta Pirenaikoaren aldean, deprimitu samar dagoen eremua da, aipatutako mendikateek, bestalde, ekialdean eta mendebaldean mugatzen dute (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

Euskadiko ebakidura latitudinal batean, azaletik, hiru eremu bereizi ahal ditugu: iparralderen dagoena isurialde atlantikoa da. Isurialde kantauriarrak Bizkaia eta Gipuzkoako probintziak osoki hartzen ditu, eta baita Arabako iparraldeko zenbait haran ere (Laudio, Aiara, Amurrio, Aramaio), halaber, Euskal Herriko estereotipoa ere irudikatzen du, klima ozeanikoak, larre eta basoen paisaia berdeek eta trinkoki populatu eta industrializatutako haran sartuen erliebe korapilatsuak definitua. (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

Kantauriar/Atlantikoko isurialdeak benetan nahasia den eredua agertzen du, kostaldetik barneko alderantz hainbat tamainatako mendilerroen artean sartutako haran ugari, erliebea mugalerro Kantauriar – Mediterraneoko katera iritsi arte altuera irabazten duten hainbat bloketan egituratzen da. Erliebe zail honek bizitzaren alderdi guztiak baldintzatzen ditu, nekazaritza eta abeltzaintzatik hasi, eta baita etxebizitzak multzokatzeko moduak edo garraiorako azpiegiturak ere (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).

Dado el clima del País Vasco, no es imprescindible el sistema de riego para la producción agrícola, y como Busca Isusi defiende «todo el mundo sabe que el producto de secano es por lo general mejor que el de regadío» (Busca Isusi, J. M. «La alimentación de Guipúzcoa», 1968).

Relieve

La Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) se puede definir como un territorio montañoso. De acuerdo con la Directiva 75/278/CEE el 85% del territorio esta considerado «zona de montaña», lo que da una idea de las limitaciones topográficas y climáticas existentes, que condicionan fuertemente la actividad primaria (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

Se divide en dos grandes conjuntos estructurales: el llamado arco Atlántico o umbral vasco, como continuación occidental del sistema Pirenaico, y la depresión del Ebro al Sur. El primero de ellos abarca la mayor extensión (Bizkaia, Gipuzkoa y gran parte de Álava). En la depresión del Ebro únicamente se inserta la comarca de la Rioja Alavesa (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

El primer conjunto lo componen una serie de pliegues mesozoicos, con una orientación O-E, que formaban parte de la amplia cobertura secundaria. Constituye una zona relativamente deprimida en relación con las cordilleras Cantábrica y Pirenaica, que con su mayor resalte la limitan por el este y oeste (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

En un corte latitudinal de Euskadi se pueden distinguir a grandes rasgos tres zonas: la que está más al norte es la vertiente atlántica. La vertiente cantábrica abarca la totalidad de las provincias de Bizkaia y Gipuzkoa, además de algunos valles septentrionales de la alavesa (Llodio, Ayala, Amurrio, Aramaio), y representa el estereotipo del País Vasco, definido por el clima oceánico, los paisajes verdes de prados y bosques y el intrincado relieve de valles encajados densamente poblados e industrializados (Fatás Cabeza, G. (Dir.) «Gran Enciclopedia de España», 2001).

La vertiente Cantábrica/Atlántica presenta un modelo ciertamente intrincado, de numerosos valles encajados entre alineaciones montañosas de distinto porte desde la costa hacia el interior el relieve se dispone en una serie de bloques que van ganando altura hasta alcanzar la cadena de la divisoria Cantábrico - Mediterránea. Este relieve tan complejo condiciona todos los aspectos de la vida, desde la agricultura y la ganadería hasta las formas de agrupar las viviendas o las infraestructuras para el transporte (Meaza Rodríguez, G. y Ruiz Urrestarazu, E. (Dir.) «Geografía de Euskal Herria», 1996).



6. irudia / *Figura 6*

Edafologia

Klima ozeanikoak lurzoru hezeak egotea eragiten du, hauetan mikroorganismo asko daude eta hauek materia organikoaren deskonposizioko eta ondorengo humidifikazioko prozesua bizkortzen dute (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).

Klima ozeanikoan ugari dira humusetan oparoak diren lurrak. Hauen ezaugarri da A. horizonte handia izatea, materia organikoan aberatsa dena (eskualde hezeetako lur arre karetsua). Karea eta materia organikoaren maila handia dituzten materialen gainean eratutako lurrak dira (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).

1.300 mm baino gehiagoko prezipitazioak dituzten aldeek lurzoru arreak eta arre-karetsuak dituzte. Kareharria eta materia organikoko kopuru handia dituzte A horizontean. Silizezko harkaitzen gainean lur arre hezea ageri da. Malda handiko eremuetan ranker eta litozoruak daude. Are gehiago zehaztuta, Gipuzkoan: lur arrea, lur arre podsolizatua, lur arre-karetsua, terra fusca, rendzina, lurzoru alubialak eta litozoruak; Bizkaian: lur arre-karetsuak, rendzinak eta lur arrea (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).

Edafología

El clima oceánico determina la existencia de suelos húmedos ricos en microorganismos que aceleran el proceso de descomposición de la materia orgánica y su posterior humidificación (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).

Bajo un clima oceánico, abundan los suelos ricos en humus, caracterizados por presentar un importante horizonte A., excepcionalmente rico en materia orgánica (tierra parda caliza de regiones húmedas). Son suelos formados sobre materiales que contienen caliza y un elevado grado de materia orgánica (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).

Las áreas con precipitaciones superiores a los 1.300 mm tienen suelos pardos y pardos-calizos. Contienen caliza y gran cantidad de materia orgánica en el horizonte A. Sobre rocas silíceas aparece la tierra parda húmeda. En las áreas de fuertes pendientes tenemos a los rankers y a los litosuelos. Concretando más: en Gipuzkoa; tierra parda, tierra parda podsolizada, tierra pardo-caliza, terra fusca, rendzina, suelos aluviales y litosuelos. En Bizkaia; tierras pardo-calizas, rendzinas y tierra parda (Gómez Piñeiro, F.J. «Geografía de Euskal Herria», 1985).



7. irudia / *Figura* 7

Piperraren premia klimatiko eta edafikoak

Piperra landare zorrotza da tenperaturari dagokionez. 15 ºC azpitik bere hazkundea moteltzen da, eta 10 ºC baino gutxiago dagoenean guztiz eteten da. 35 ºC baino gehiagoko tenperaturek lorea eroraraztea eragin dezakete. Lurzoru sakonak eta ondo drainatuak behar ditu, bere sustrai-sistema ahaltsua arazorik gabe garatu ahal izateko. Ondo hazten da pH ia neutroekin, sei eta zortzi bitartekoekin (Océano Centrum «Enciclopedia Práctica de la Agricultura y la Ganadería», 1993).

Piperraren barietateak oso exijenteak dira lurzoruei dagokienez, eta ez dituzte batere ondo onartzen lurzoru buztintsuak, ezta materia organiko urriko lurzoruak ere. Gazitasuna oso gaizki hartzen du (Hagina, Revista Agraria. 1994). Hobea da, gainera, lurzoruak sakontasuna eta drainadura ona izan ditzan (Alonso, F.J. y Souza Egipsy, V. «La huerta, guía completa de hortalizas y verduras», 1977).

Kantaurira begira dauden baratzeek, ipar-mendebaldeko haize nagusien babesean kokaturik, mikroklima dute, bereziki epela, eguzkitsu dira eta, eta itsasoak, tenperaturen erregulatzailearena egiten duela, izozte handietatik babesten ditu. Gorabehera honi esker, batez ere udaberri-udazkeneko garaian baratzeak, ureztatzerik behar ez dutenak, euria maiz gertatzen baita aipatutako urtaro horien lehenean, baba, leka, ilar, letxuga, zerba, porruak, azenarioak, tomateak eta piper barietate handiaz gainezka egoten dira, azken hauen artean, bestalde, Gernikako lukainka-piperrak nabarmendu behar ditut (Lapitz, J.J. «Comer en Euskalherria», 1980).

Necesidades climáticas y edáficas del pimiento

El pimiento es una planta exigente en cuestión de temperatura. Por debajo de 15 ºC su crecimiento se ralentiza, y a menos de 10 ºC se detiene por completo. Las temperaturas superiores a 35 ºC pueden provocar la caída de la flor. Requiere suelos profundos y bien drenados, donde su potente sistema radicular pueda desarrollarse sin problemas. Crece bien con pH casi neutros, entre seis y ocho (Océano Centrum «Enciclopedia Práctica de la Agricultura y la Ganadería», 1993).

Las variedades de pimiento son muy exigentes en suelos, no admitiendo nada bien los suelos arcillosos ni los de bajo contenido en materia orgánica. Admite muy mal la salinidad. (Hagina, Revista Agraria. 1994). Es mejor que el suelo, también posea profundidad y buen drenaje (Alonso, F.J. y Souza Egipsy, V. «La huerta, guía completa de hortalizas y verduras», 1977).

Las huertas que miran al Cantábrico, ubicadas al socaire de los vientos dominantes del noroeste, gozan de un microclima, especialmente benigno, ya que están soleadas, y el mar actuando de regulador de temperaturas las protege de las grandes heladas. Esta circunstancia permite que en la época primavera-otoño primordialmente, las huertas, que no precisan de regadío, ya que las lluvias son frecuentes en la primera de las citadas estaciones, estén saturadas de habas, vainas, guisantes, lechugas, acelgas, puerros, zanahorias, tomates y una gran variedad de pimientos entre los que destaco los choriceros de Gernika (Lapitz, J.J. «Comer en Euskalherria», 1980).

Euskal Herriko klima piperraren behar agroklimatikoekin ezin hobeto etortzen da bat. Euskal Herriko isurialde atlantikoak piperrari beharrezko tenperatura eskaintzen dio, moderatua eta ez sobera beroa; eta baita izozteak ez gertatzeko segurtasuna ere. Euskal Herriko iparraldeko ezaugarri edafikoek, berriz, bere lurzoru karetsuei eta materia organiko ugariari esker, Gernikako piperrari hazkunde egokia eskaintzen diote.

G) Kontrolaren egitura.

Kontrolerako Erakundea Erakunde Pribatu Babestua da, Fundación Kalitatea Fundazioa, hurrengo helbidea duena: Abadiñoko Muntsaratz Dorrea (Bizkaia), telefonoa: 94 603 03 30, faxa: 94 603 39 53 eta posta elektronikoa: euskolabel@euskolabel.net.

Fundación Kalitatea Fundazioak «Pimiento de Gernika» edo «Gernikako Piperra» kontrolatu eta ziurtatzeko bitarteko tekniko eta giza baliabide nahikoak ditu eta EN 45011 arauan ezarritako eskakizunak betetzen ditu.

Fundación Kalitatea Fundazioak kalitateko eskuliburua garatu du, baita «Pimiento de Gernika / Gernikako Piperra» ziurtatzeko beharrezko prozedura orokorrak eta espezifikoak ere.

H) Etiketatzea.

Etiketetan, indarreko legerian, oro har, erabakitzen diren datuez gainera, «Pimiento de Gernika» edo «Gernikako Piperra» aipamena eta jarraian azaldutako ikurra nahitaez agertuko dira:

El clima del País Vasco encaja perfectamente con las necesidades agroclimáticas del pimiento. La vertiente atlántica de Euskal Herria ofrece al pimiento la temperatura necesaria, moderada y no excesivamente calurosa; y la seguridad de que no se producirán heladas. Por otra parte, las características edáficas del norte del País Vasco con sus suelos calizos y su abundante materia orgánica proporcionan al pimiento de Gernika el crecimiento adecuado.

G) Estructura de control.

La Entidad de Control es un Organismo Privado Autorizado, Fundación Kalitatea Fundazioa, con dirección en Torre Muntsaratz de Abadiño (Bizkaia), teléfono: 94 603 03 30, fax: 94 603 39 53 y correo electrónico euskolabel@euskolabel.net.

La Fundación Kalitatea Fundazioa, es una entidad que cuenta con los medios técnicos y humanos suficientes para controlar y certificar «Pimiento de Gernika o Gernikako Piperra» y cumple los requisitos establecidos en las normas EN 45011.

La Fundación Kalitatea Fundazioa ha desarrollado un manual de calidad así como los procedimientos generales y específicos necesarios para certificar «Pimiento de Gernika / Gernikako Piperra».

H) Etiquetado.

En el etiquetado, además de los datos que con carácter general se determinan en la legislación vigente figurará obligatoriamente la mención «Pimiento de Gernika» o «Gernikako Piperra» y su símbolo que se reproduce a continuación:.

Produktua identifikatzen duen ikurra borobil formakoa da eta 3 atal nagusik osatuta dago:

– Pimiento de Gernika – Gernikako Piperra aipamena, arial black tipografian, ikurraren forma zirkularrari jarraiki Pantone 485 kolorean (% 20 cyan, % 100 magenta, % 100 horia eta % 0 beltza).

– Produktuaren marrazkia, ikurraren beheko erdia okupatzen duena eta bi berdetan: Pantone 363 (% 69 cyan, % 0 magenta, % 100 horia eta % 23 beltza) eta Pantone 349 363 (% 100 cyan, % 0 magenta, % 91 horia eta % 47 beltza).

– Ikurraren goiko aldean irudia agertuko da, eta bertan baserria, mendiak eta zerua dituen paisaia agertuko da, bere kolore nagusia Pantone 2915 da (% 60 cyan, % 8 magenta, % 0 horia eta % 0 beltza).

El símbolo identificativo del producto tiene forma circular y está compuesto por 3 partes principales:

– La mención Pimiento de Gernika – Gernikako Piperra en tipografía arial black, siguiendo la forma circular del símbolo en color Pantone 485 (20% cyan, 100% magenta, 100% amarillo y 0% negro).

– El dibujo del producto ocupando la mitad inferior de símbolo y en dos verdes: Pantone 363 (69 cyan, 0% magenta, 100% amarillo y 23% negro) y Pantone 349 363 (100 cyan, 0% magenta, 91% amarillo y 47% negro).

– Parte superior del símbolo con la imagen de un paisaje con caserío, montañas y cielo, cuyo color predominante es el Pantone 2915 (60 cyan, 8% magenta, 0% amarillo y 0% negro).

Deituraren ikurra agertzen den etiketa edo ontzien gaineko kontrola egingo dute, egoki erabiltzen dutela, imitaziorik ez dutela egiten eta bere idazketa edo aurkezpenak ez dakarrela ospe-galtzerik deiturarako.

I) Legegintzako eskakizunak.

Azaroaren 25eko 1414/2005 Errege Dekretua, jatorrizko deitura babestuen eta adierazpen geografiko babestuen erkidegoko erregistroan inskribatzeko eskabideak izapidetzeko prozedura araupetzen duena.

Mahatsari eta ardoari buruzko uztailaren 10eko 24/2003 Legea.

Se llevará un control de las etiquetas o envases donde se encuentre el símbolo de la Denominación con el fin de vigilar su adecuada utilización, que no se produzcan imitaciones y que su redacción o presentación no provoque desprestigio para la Denominación.

I) Requisitos Legislativos.

Real Decreto 1414/2005, de 25 de noviembre, por el que se regula el procedimiento para la tramitación de las solicitudes de inscripción en el registro Comunitario de las Denominaciones de Origen Protegidas y de las Indicaciones Geográficas Protegidas.

Ley 24/2003, de 10 de julio, de la Viña y del Vino.

Justizia Administrazioa

BARAKALDOKO LEHEN AUZIALDIKO 3 ZENBAKIKO EPAITEGIA

2816

EDIKTUA, 1229/06 hitzezko judizioaren ondoriozkoa.

Barakaldoko (Bizkaia) Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegia.
Judizioa: desahuzioari buruzko 1229/06 hitzezko judizioa.
Alderdi demandatzailea: Juan Jose Perez Velasco.
Alderdi demandatua: Pedro Luis Escuredo Miranda.
Gaia: ordainketa ez egiteagatiko desahuzioa eta errentak erreklamatzea.

Judizio horretan alderdi demandatuari zedula entregatzea erabaki da. Zedula horren testuak honela dio hitzez hitz:

ZITAZIO ZEDULA

Epatzeko agintzen duen auzitegia: Barakaldoko (Bizkaia) Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegia.

Ebazpenaren gaia: goian aipatutakoa.

Nor zitatzen den: alderdi demandatua denez Pedro Luis Escuredo Miranda.

Zitazioaren xedea: judizioko bistara joatea. Horrez gain, aurkako alderdiak eskatzen badu eta epaileak onartzen badu, hark aurkezten duen galdera-sortari erantzutea. (aurkeztutako dokumentuen eta demandaren kopiak eransten dira).

Non azaldu behar den: Epaitegi honetan, Bide Onera kalea, z/g, -1. sotoko solairuko 6 zenbakiko bisitaaretoan.

Administración de Justicia

JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 3 DE BARAKALDO

2816

EDICTO dimanante del juicio verbal n.º 1229/06.

Juzgado de Primera Instancia n.° 3 de Barakaldo (Bizkaia).
Juicio: J. verbal desh. L2 1229/06.

Parte demandante: Juan Jose Perez Velasco.
Parte demandada: Pedro Luis Escuredo Miranda.
Sobre: desahucio falta de pago y reclamación de rentas.

En el juicio referenciado se ha acordado entregar a la parte demandada la cédula cuyo texto literal es el siguiente:

CÉDULA DE CITACIÓN

Tribunal que ordena citar: Juzgado de Primera Instancia n.° 3 de Barakaldo (Bizkaia).

Asunto en que se acuerda: el arriba referenciado.

Persona a la que se cita: Pedro Luis Escuredo Miranda en concepto de parte demandada.

Objeto de la citación: asistir a la vista del juicio y también, si la parte contraria lo solicita y el Juez lo admite, contestar al interrogatorio que aquélla le pueda formular. (Se acompaña copia de la demanda y de los documentos presentados).

Lugar en que debe comparecer: en la sede de este Juzgado, sito en Bide Onera s/n, Sala de Vistas n.° 6, planta sótano.